

Uxueko Andre Maria Torreciudadera erromes aurreneko aldiz

Nafarroako Unibertsitateko
Graduatuen Elkarteak abian
jarritako ekintza da,
arrosarioaren hila dela medio.
Hirurehun fededun lagundu
zioten bere zaindariari
santutegiraino

2004 Urr 21

Uxueko Ama Birjinari jaiera dioten
hirurehun lagun baino gehiago

gerturatu dira Huescako
Torreciudadeko Santutegiraino
errones, urriaren 16an, Erriberako
zenbait herrietatik abiatuta. Boregan
eskultoreak egindako irudia eraman
zuten berekin, bere zaindariaren
erreplika dena, santutegiko Andre
Mariaren irudien galerian geldi
dadin, mundu zabaleko beste
hirurehun irudiekin batera.

Goizeko 11:45etan hasi zen ekitaldia,
Torreciudadeko zelaigunean zehar
egindako prozesioarekin, Ama
Birjinaren irudia sorbaldan
zeramatela eta Santa Cararen
Abesbatzaren kantuek eta elizaren
kanpaien hotsek errromesei
ongiectorria ematen zieten bitartean.
Ondoren, Uxueko alkatesa, Maria
Jesus Zoroza, apaizaren harrerari
erantzun zuen: “Eskerrik asko Opus
Deiri Uxueko Ama Birjinari
Torreciudadeko Santutegi honetan
egindako harreragatik.
Aurrerantzean, Opus Deiri esker,

oraindik ezagunago izango da munduan zehar Uxueko gure Ama Birjina. Eska dezagula denok Uxueko Ama Birjinaren babesa Opus Deirentzat eta guztientzat.”

Hamaikak eta laurdenetan erromesaren meza ospatu zen, Uxueko irudia buru zela eta santutegiko errektore Javier Mora-Figueroak eta Uxueko parroko Jose Luis Garcia Pellejerok emana. Elizkizunean Uxueko abesbatzak, Jose Arruti bere zuzendariak zuzenduta, Ama Birjinaren zenbait abesti kantatu zituen baita erromesaldian ohitura diren jotak, 'Es morenita y galana' bezalakoak.

Arratsaldez, bazkalondoan, Uxueko eliztarrek arrosarioa errezatu zuten, santutegiko kanpoko zelaigunea zeharkatuz. Bukatutakoan, elizaren barruan, Jaunaren bedeinkapenean izan ziren.

Nafarroako Unibertsitateko
Graduatuen Elkartek abian
jarritako ekintza da, arrosarioaren
hila dela medio. Uxueko parrokoak
eta Erriberako zenbait bizilagunek
parte hartu dute, baita Maria Jesus
Zoroza alkatesak; hona hemen bere
hitzak: “Egia esan nik ez nuen espero
horren ederra izango zenik eta,
alkatesa bezala, harro sentitu naiz
Uxueko Ama Birjinari bere herritik
kanpo hainbat jendek erakutsi dion
debozioaz”.

Ospatu diren ekintzetatik, Zorozak
santutegian sartzeko prozesioarena
azpimarratzen du: “benetan
hunkigarria izan da, eta abestu
dizkioten jotak entzutea ere bai”.
Gainera, egunaren giroa azpimarratu
du “ingurumariko herritar asko
etorri baitira gure Ama Birjinari
ohoratzerantz: Tafallatik, Santa Caratik,
Murillo del Frutotik, Casedatik...”.
Azkenik, datorren urtean berriz
etortzeko asmoa azaldu du: “berriz

etorriko gara, baina Uxueko
abesbatzarekin, guk dakizkigun
abesti ederrak kantatzera, pena
eman dit eta, esate baterako,
“Estrella la más hermosa” kantatu ez
izanak”.

Santutegian geldituko den Uxueko
Ama Birjinaren irudia Boregan
eskultorearen lana da, jatorrizkoaren
estilo erromanikoari leial jarraituz
egindakoa. Artistaren esanetan,
Erriberako zaindariaren bigarren
erreplika ofiziala da; “oso aldaketa
gutxi ditu eta erretxinaz eta marmol
hautsaz moldeaketako materialak
erabiliz egin dut”. Irudikatzeko oso
gaitza den irudia dela aitortu du
Boreganek, “daramatzan harribitxi
eta xehetasun askogatik, buru-belarri
aritzea eskatzen duena”.

Gerturatu direnen artean Uxueko
aldamenean dauden herri
askotakoak zeuden, Casedatik
etorritako Marisol bezala.

TorreCiudadera bere aurreneko
erromesaldia izan da. “Oso leku
atsegina da. Ama Birjinarekin
prozesioan iritsi garenean, une
berezi bat bizi dut, nire senarra
debozio handia ziolako; oroitzapen
asko gogoratu zaizkit”.

Casedako beste emakume bat,
Mercedes, bere ahizpa Rosariorekin
etorri da. Mercedesek “bake handiko
leku” baten oroitzapena gelditu
zaiola dio, “eta horrexegatik neure
asmo batzuen alde eskatzeko
aprobetxatu dut”.

Uxueko zaindariarekin batera
Nafarroako beste zenbait irudi daude
hala nola Lizarrako Puyko Andre
Mariarena, TorreCiudadera lehengo
urteko urrian erromes etorrita, eta
Euskadiko beste zenbait:
Arantzazuko Ama, Begoñako Andra
Maria eta Estibalizko Ama Birjina

pdf | document generated
automatically from [https://
dev.opusdei.org/eu-es/article/uxueko-
andre-maria-torreciudad-erromes-
aurreneko-aldiz/](https://dev.opusdei.org/eu-es/article/uxueko-andre-maria-torreciudad-erromes-aurreneko-aldiz/) (2025 Abu 6)